



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko maiatzaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, maiatzaren hiruan, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, Peio DACHAGUER, GOICOECHEA Iñaki, JORAJURIA Ramuntxo.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren eguna: 2022ko apirilaren 28a

Afitxatze eguna : 2022ko apirilaren 28a

1.ERABAKIA : GAITASUN AINITZEKO TEKNIKARI LANPOSTU BATEN SORTZEA

Nomenklatura : 4.1.1

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio orotarako langile teknikari lanpostu iraunkor baten sortzea, denbora osokoa, eraikin eta eremu publikoen mantenua egiteko.

Asteko batezbesteko lan denbora 35 orenekoa izanen da.

Enplegu hori C kategoria hierarkikoan kokatzen da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua	Dago(z)kion gradua(k)	Kategoria hierarkikoa	Aurrekontuko zenbatekoa	Asteko batezbesteko lan denbora	Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa
Orotarako langile tekniko	Teknikari ordea 2. klaseko teknikari orde nagusia 1. mailako teknikari orde nagusia	C	1	Denbora osoa	Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L. 332-8 3° artikulua

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzten,

- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 3° artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke. Honela 1000 biztanletik beherako herrietan, edo 15 000 biztanletik beherako herri elkargoetan kontratupeko langileak kontrata daitezke enplegu iraunkorretan,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitezkeen 3 urteko iraupenekoak izan behar dute, hots gehienez 6 urte segidan. 6 urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 430 arteko indize gordina izanen luke.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU - 2022ko ekainaren 1etik goiti orotarako langile teknikari lanpostu iraunkor baten sortzea, denbora osokoa,

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko da,

- kontratupekoa izaten bada, enpleguak 367 eta 430 arteko indize gordina izanen du.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guztiak.

ZEHAZTU DU, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 10

Balitzko boz kopurua : 10

ALDE : 10

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko maiatzaren 3an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/05/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/05/11n.